

## Euskarabideko egiaztapen proben ezaugarriak

<b>A1</b>		
<b>Idatzizko proba</b>  Iraupena: ordu eta laurdena.	Ulermena	- Egitekoa: testu bat irakurri eta ariketak erantzun. - Testuaren luzera: 400 hitz gehienez. - Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, egia/gezurra, lotu, taulak osatu eta abar.
	Idazmena	- Egitekoa: Idazlan hauetako bat egin: <ol style="list-style-type: none"> <li>1. idazlana: gutxienez 40 hitz idatzi beharko dira. Argibideak edo informazioa emateko edo eskatzeko mezu elektronikoa, oharra, postala...</li> <li>2. idazlana: gutxienez 60 hitz idatzi beharko dira. Bizimoduaren berri emateko, plana proposatzeko, mezuari erantzuteko lagunarteko eskutitza, mezua, oharra, postala... idatzibeharko da.</li> </ol>
<b>Ahozko proba</b>  Iraupena: 15 minutu.	Azterketaria bakarka arituko da. Bi ariketa eginbeharko ditu. Aldez aurretik proba prestatuko du, 10 minutuz. <ol style="list-style-type: none"> <li>1. ariketa: Aurkezpena. Azterketariak euren burua aurkeztuko dute, galdera batzuen laguntzaz. Denbora: 2 min.</li> <li>2. ariketa: Elkarrizketa. Galdetegi baten laguntzaz, azterketariak eguneroko gai bati buruzko galderak erantzunen dituzte. Denbora: 3 min.</li> </ol>	

<b>A2</b>		
<p><b>Idatzizko proba</b></p> <p>Iraupena: ordu eta laurdena.</p>	Ulermena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: testu bat irakurri eta ariketak erantzun.</li> <li>- Testuaren luzera: 600 hitz gehienez.</li> <li>- Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, egia/gezurra, loturak egin (galderak eta erantzunak...), taulak osatu eta abar.</li> </ul>
	Idazmena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: Idazlan hauetako bat egin:                             <ol style="list-style-type: none"> <li>1. idazlana: gutxienez 50 hitz idatzi beharko dira. Argibideak edo informazioa emateko edo eskatzeko mezu elektronikoko laburra, oharra... idatzi beharko da.</li> <li>2. idazlana: gutxienez 100 hitz idatzi beharko dira. Esperientziak kontatzeko, proposamen laburrak egiteko, informazio pertsonala trukatzeko edo pertsonak deskribatzeko mezu laburrak, gutun pertsonalak... idatzi beharko dira.</li> </ol> </li> </ul>
<p><b>Ahozko proba</b></p> <p>Iraupena: 15 minutu.</p>	<p>Azterketaria bakarka arituko da. Bi ariketa egin beharko ditu. Aztertzaileek galderaren bat egiten ahal diote. Aldez aurretik proba prestatuko du, 10 minutuz.</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. ariketa: Aurkezpena. Azterketariak bere burua aurkeztuko du, gidoi baten laguntzaz. Denbora: 2 min.</li> <li>2. ariketa: Solasaldia. Argazki ala galdetegi baten laguntzaz azterketaria mintzatuko da bere gustuz eta bizipenez. Denbora: 3 min.</li> </ol>	

<b>B1</b>		
<p><b>Idatzizko proba</b></p> <p>Iraupena: ordu eta laurdena.</p>	Ulermena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: testu bat irakurri eta ariketak erantzun.</li> <li>- Testuaren luzera: 800 hitz gehienez.</li> <li>- Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, egia/gezurra, galderak era erantzunak lotu, taulak osatu, testu zatiak kokatu, paragrafoak ordenatu eta abar.</li> </ul>
	Idazmena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: Idazlan hauetako bat egin:                             <ol style="list-style-type: none"> <li>1. idazlana: gutxienez 75 hitz idatzi beharko dira. Argibideak, informazioa edo zerbait eman- eskatzeko mezu elektronikoko laburrak, oharra, gutun pertsonalak, eskari-gutunak... idatzi behar dira.</li> <li>2. idazlana: gutxienez 100 hitz idatzi beharko dira. Esperientziak edota gertaerak kontatzeko, azalpenak emateko, pertsonen, tokien eta gauzen deskribapenak egiteko, aholkuak emateko, proposamenak egiteko edo iritzi laburrak emateko mezuak, gutun pertsonalak, eskari-gutunak... idatzi behar dira.</li> </ol> </li> </ul>
<p><b>Ahozko proba</b></p> <p>Iraupena: 20 minutu.</p>	<p>Azterketariak binaka arituko dira. Bi ariketa egin beharko dituzte. Aldez aurretik probaprestatuko dute, 10 minutuz.</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. ariketa: Bakarrizketa. Proposatutako gaiaren inguruan mintzatu: testua azaldu eta iritzia eman. Euskarria: gaia, testua eta galdera lagungarriak. Denbora: 3 min.</li> <li>2. ariketa: Bat-bateko elkarrizketa binaka. Adostasun/akordio batera iristeko egoera bat aurkeztuko zaie. Helburua: negoziatzea, informazioa eta iritzia trukatzea. Euskarria: egoera bat eta fitxa (argazkiak, gaiari buruzko zenbait aukera-egoera). Denbora: min. 1 fitxa begiratzeko, 6 min. bien artean elkarrizketan aritzeko.</li> </ol>	

<b>B2</b>		
<p><b>Idatzizko proba</b></p> <p>Iraupena: ordu eta erdia.</p>	Ulermena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: testu bat irakurri eta ariketak erantzun.</li> <li>- Testuaren luzera: 1.000 hitz gehienez.</li> <li>- Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, egia/gezurra, taulak osatu, testu zatiak txertatu, paragrafoak ordenatu eta abar.</li> </ul>
	Idazmena	<p>- Egitekoa: Idazlan hauetako bat egin:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. idazlana: gutxienez 125 hitz idatzi beharko dira. Zerbaiten berri emateko, eskaera egiteko, proposamenak egiteko, erreklamatzeko edo kexa aurkezteko gutuna.</li> <li>2. idazlana: gutxienez 125 hitz idatzi beharko dira. Iritzia emateko, gertaera batek eragindako jarrera edo sentimendua adierazteko, iruzkina, blogerako idazkia, iritzi-artikula...</li> </ol>
<p><b>Ahozko proba</b></p> <p>Iraupena: 20 minutu.</p>	<p>Azterketariak binaka arituko dira. Bi ariketa egin beharko dituzte. Aldez aurretik proba prestatuko dute, 10 minutuz.</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. ariketa: Bakarrizketa. Proposatutako gaiaren inguruan mintzatu: testua ahalik eta zehatzen azaldu eta iritzia eman. Euskarria: gaia, testua eta galdera lagungarriak. Denbora: 3 min.</li> <li>2. ariketa: Bat-bateko elkarrizketa. Adostasun/akordio batera iristeko egoera bat aurkeztuko zaie. Helburua: negoziatzea, informazioa eta iritzia trukatzea. Euskarria: egoera bat eta fitxa (argazkiak, gaiari buruzko zenbait aukera-egoera). Denbora: min. 1 fitxa begiratzeko, 6 min. bien artean elkarrizketan aritzeko.</li> </ol>	

<b>C1</b>		
<p><b>Idatzizko proba</b></p> <p>Iraupena: ordu eta erdia.</p>	Ulermena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitekoa: testu bat irakurri eta ariketak erantzun.</li> <li>- Testuaren luzera: 1.200 hitz gehienez.</li> <li>- Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, testu zatiak txertatu, ordenatu, cloze testa eta abar.</li> </ul>
	Idazmena	<p>- Egitekoa: Idazlan hauetako bat egin:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. ariketa: gutxienez 150 hitz idatzi beharko dira. Zerbaiten berri emateko, ezadostasuna adierazteko, eskaera egiteko, erreklamatzeko edo kexa aurkezteko gutuna.</li> <li>2. ariketa: gutxienez 150 hitz idatzi beharko dira. Iritzia emateko, iruzkina egiteko, gertaera baten aurrean ikuspuntua azaltzeko iritzi-artikulua.</li> </ol>
<p><b>Ahozko proba</b></p> <p>Iraupena: 28 minutu.</p>	<p>Azterketariak binaka arituko dira. Bi ariketa egin beharko dituzte. Aldez aurretik proba prestatuko dute, 15 minutuz.</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. ariketa: Bakarrizketa. Proposatutako gaiaren inguruan mintzatu: irakurritako testua ahalik eta zehatzen azaldu eta iritzia eman. Euskarria: gaia, testua eta galdera lagungarriak. Denbora: 4 min.</li> <li>2. ariketa: Bat-bateko elkarrizketa binaka. Helburua da eztabaidatzea, iritziak arrazoitu eta defendatzea. Euskarria: gaia, egoera bat eta fitxa bana. Gai beraren inguruko bi ikuspegi (aldekoa eta aurkakoa). Denbora: min. 1 fitxa begiratzeko, 8 min. bien artean elkarrizketan jarduteko.</li> </ol>	